

## Urriak 24, Liburutegien Nazioarteko Eguna

Gazteen Euskal Behatokiak gazteriari buruzko gaietan espezializatutako [Dokumentazio Zentroa](#) du. Zentro hori Euskadiko Irakurketa Publikoko Sarean integratuta dago. Dokumentazio Zentroan **liburuak maileguan eskatu** daitezke, bai gure bulegora etorrita (Uriortu kalea, 11, Bilbo), bai sareko beste edozein liburutegitik.

Gure katalogoan, gaur egun, **4.578 liburu** dauzkagu. Urtero 100 liburu berri baino gehiagorekin osatzen dugu katalogoa.

Gazteen Euskal Behatokian **48 aldizkari**etako sarrera daukagu. Batzuk elektronikoak dira eta beste batzuk paperean jasotzen ditugu; azken horiek ez dira maileguan eskaintzen, baina Behatokian bertan kontsulta daitezke.

**Hilero** ondokoak argitaratzen ditugu: erositako liburu berrien zerrenda, harpidetzapean dauden **aldizkarien** ale berrien **aurkibideak**, Interneten gazteriaren gaia jorratzen duten **artikuluen zerrenda**, gaika sailkatzen ditugunak, bai eta **artikulu nabarmenen laburpena** ere, gure aldizkarietan edo Interneten argitaratutakoen artean.

Gainera, Dokumentazio Zentroak Gazteen Euskal Behatokiak eskaintzen dituen prestakuntza-ikastaroen gaiekin lotutako **irakurketa-gidak** egiten ditu. Irakurketa-gida horiek Behatokiaren webgunean ere eskura daitezke.

